



60

**JARDUNBIDE
EGOKI
IKASKUNTZA
ZERBITZUAN**

**XEDE SOZIALEKO
ESPERIENTZIA
HEZIGARRIEN
INBENTARIOA**


zerbikas fundazioa
Ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario



BILBO

Indautxu kalea, 9 beheko solairua.

48011 Bilbo

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Bizkaia pasealekua, 15-16 beheko solairua.

VITORIA-GASTEIZ

Errege atea, 20 beheko solairua



Lan hau kopiatu, banatu edota jendaurrean jakinaraz dezakezu, betiere egilea aipatzen baduzu eta ez baduzu merkataritza xedeetarako erabiltzen. Beste lan berriak sortzeko ere erabili dezakezu, baina lan berri horiek banatzeko lizentzia bat beharko duzu.

KOORDINAZIOA

Roser Batlle

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Eva Anguera

ITZULPENA:

Bitez Logos

David Martínez eta Asunción Batlle boluntario gisa aritu dira jardunbide egoki hauek biltzeko eta itzultzeko lanetan.

ISBN: 978-84-9726-741-0

LG: BI-1411-2013

60

**JARDUNBIDE
EGOKI
IKASKUNTZA
ZERBITZUAN**

**XEDE SOZIALEKO
ESPERIENTZIA
HEZIGARRIEN
INBENTARIOA**

Ikasi, erkidegoari zerbitzua eskainiz

Ikaskuntza~zerbitzua hezkuntza proposamena da, eta ikaskuntza zein erkidegoarentzako zerbitzua bateratzen ditu ondo egituraturako proiektu bakar batean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, ingurune benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz.

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei

ikaskuntzazerbitzua

A diagram consisting of the text 'ikaskuntzazerbitzua' in a bold, sans-serif font. Two curved arrows are positioned around the text: a white arrow on top pointing from left to right, and a black arrow on the bottom pointing from right to left, creating a circular loop around the text.

*Gauza txikitxoak dira.
Ez diote txirotasunari aurre
egiten,
ez gaituzte azpigarapenetik
ateratzen,
ez dituzte ekoizpen eta
aldaketa bideak gizarteratzen,
ez dituzte Ali Babaren
haitzuloak desjabetzen.
Dena dela, beharbada, egiteko
alaitasuna sortu
eta ekintza bihurtzen dute.
Azken batean, errealitatean
jardutea
eta apurtxo bat aldatzea da
errealitatea eraldatu egin
daitekeela
egiaztatzekeo modu bakarra.*

Eduardo Galeano

ZER DUGU HEMEN?

“Ikasleek gehiago eta hobe ikasten dute haien hezkuntza esperientzian oinarritzen bada eta hirugarren sektoreko, erkidegoko, arazoei irtenbidea aurkitzea xede badu.”

Jeremy Rifkin

«60 jardunbide egoki Ikaskuntza Zerbitzuan» dokumentuak hainbat ekimen jasotzen ditu, non ikasleek erkidegoari zerbitzua emanaz ikasten duten.

Aipatuko diren jardunbide egokiek lau urte baino gehiagoko ibilbidea dute, eta hezkuntza-maila ia guztietako ikastetxeetan garatzen ari dira: lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, hasierako lanbide prestakuntzako programak, hezkuntza berezia, unibertsitatea, helduen hezkuntza...; eta baita askotariko gizarte erakundeetan ere: aisialdiko hezkuntza, ingurumenekoa, kulturala, soziosanitarioa, garapenerako lankidetzak...

Jardunbideak parte-hartzaileen adinaren arabera sailkatu ditugu, eta ez hezkuntza-mailaren edota jardunbide-esparruaren arabera. Horrela, adibidez, 18 urtetik gorakoei dagokien atalean, unibertsitatean, helduen eskoletan edota presoentzako lanbide prestakuntzan garatutako jardunbideak aurkituko ditugu.

Aipatuko ditugun proiektu asko zentro edo erakunde batean baino gehiagotan garatzen dira, horregatik, amaigabea da eragindako erakundeen zerrenda. Inbentario honetako azken orrietan proiektuetan parte hartzen duten erakunde gutxi batzuk besterik ez ditugu aipatu. Esan behar dugu, erakunde horiek oso eskuzabalak izan direla eta haiek hartutako irudiak, iritziak eta deskribapenak helarazi dizkigutela.

Aurrera ateratzeko, hezkuntza sektorearen eta gizartearen arteko lankidetzak ezinbestekoa dute proiektu askok, eta horregatik, lurralde batean egin daitekeen sare-lanaren edota gizarte kapitala aberasteko moduen adibide interesgarriak dira.

Horregatik guztiagatik, ikaskuntza-zerbitzua kontzeptuak erabilgarritasun bikoitza duela esan daiteke, alde batetik, hezkuntza arrakasta hobetzen duelako, eta bestetik, kohesio soziala bultzatzen duelako.

Roser Batlle
Zerbikas Fundazioa

6-12 urte

- 1 Irakurlagunak 6
- 2 Kontzertuak egoitzan 7
- 3 Txakurtegi proiektua 8
- 4 Garlochí parkea 9
- 5 Caramelles proiektua 10
- 6 Buztinezko habiak 11
- 7 Irrati bidezko ipuinak 12
- 8 Bakearen eta musikaren enbaxadoreak 13
- 9 Kilometro solidarioak 14
- 10 Elikagaien bankua 15
- 11 Gure eginkizuna 16
- 12 Jostailuak denontzat 17
- 13 Hiri baratza 18
- 14 Jangelan laguntzen 19
- 15 Bakean jolasten ikasi 20

12-16 urte

- 16 Odola ematea 21
- 17 Gizarte ekintzaile gazteak 22
- 18 Auzoko berri-biltzaileak 23
- 19 Eraikitzen lanpetuta 24
- 20 Klima aldaketaren bitartekariak 25
- 21 Zibermanagerrak 26
- 22 Uki dezagun zura 27
- 23 Zizeron proiektua 28
- 24 Gazte berdintasuna 29
- 25 Landa-lana Gallartako meategian 30
- 26 Let's teach English 31
- 27 Ezagutzea maitatzea da 32
- 28 Eguzki-erlojua 33
- 29 Pedalei elkarrekin eraginez 34
- 30 Harresia babes dezagun 35

16-18 urte

- 31 Gabon kanta lehiaketa 36
- 32 Lliurex irakasleentzat 37
- 33 Zain ditzagun aitona-amonak 38
- 34 Gazteak auzoan barrena 39
- 35 Eskurik altxa gabe 40
- 36 Artea eskolaurreko hormetan 41
- 37 Ven Pa`Ká proiektua 42
- 38 La Murga proiektua 43
- 39 Guraize oztopo-ebakitzzaileak 44
- 40 Etxolatxo bat birgaitzea 45
- 41 Egur gehiago 46
- 42 Berpiztu dezagun ibaia 47
- 43 Konekta Gaztea 48
- 44 Partekatu begiradak 49
- 45 Argiak, kamera, akzioa! 50

18 urtetik gora

- 46 Komunika tailerra 51
- 47 PEINAS proiektua 52
- 48 Adams proiektua 53
- 49 FIARE proiektua 54
- 50 Irakurzaleak 55
- 51 Egoitzaren proiektu soziala 56
- 52 Marketing korporatiboko maratoi solidarioa 57
- 53 Ondarearen kudeaketa eta gizarteratzea 58
- 54 Lorategi terapeutikoa Miquel Martí, 59. poligonoa
- 55 Arte eszenikoak GGEEen alde 60
- 56 Bizi-kalitatea hobetzeko teknologiak 61
- 57 Kafea eta hitzak 62
- 58 Horrela, bai? 63
- 59 Safalud 64
- 60 Ingurunea zainduz, etorkizuna eraikiz 65

6-12urte



Erkidegoari emandako zerbitzua

Gaztelania ikasgaietan, neska-mutilak haur hezkuntzako ikasleentzako irakurlagun edo tutore bihurtuko dira, eta aldez aurretik landutako ipuinak kontatuko dizkiete.



Ikaskuntzak

Ikasleek irakurketa, mintzaira eta keinu bidezko komunikazioa hobetuko dute, eta pazientzia eta erantzukizuna landuko dute txikiekin izango duten harremanean.

6-12urte



2

KONTZERTUAK EGOITZAN

Agureen bakardadea eztitu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Musika ikasgaien, neska-mutilek kontzertu bat prestatuko dute, ondoren zaharren egoitzetan joko dutena.



Ikaskuntzak

Zaharren beharrezanekiko sentikortasuna eta ezagutza; errespetu-, tolerantzia- eta konpromiso-jarrerak; musika-gaitasunen hobekuntza.

6-12urte

3

**TXAKURTEGI
PROIEKTUA****Abandonatutako animaliak
zaindu****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Scout talde bateko neska-
mutilak txakurtegi batean bizi
diren animalia abandonatuetaz
arduratuko dira udako
kanpamentuan.

**Ikaskuntzak**

Animalien zaintzari, elikadurari,
higienari eta beharizane
buruzko ezagutzak; sentikortasuna,
erantzukizuna, errespetu- eta
konpromiso-jarrerak.

6-12urte



4

GARLOCHÍ PARKEA BIRGAITZEA

Parke publikoa babestu eta defendatu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera ikasgaiari, utzikeriari, narriadurari eta bandalismoari jotako auzoko parke publiko bati birgaitzeko lanak egingo dituzte neska-mutiles.



Ikaskuntzak

Parte-hartze aktiboa eta kritikoa, gizalegezko konpromisoa; pertenezia-sentimendua; garbiketarekin, margolaritzarekin, igeltserotzarekin eta argazkigintzarekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak.

6-12urte

5

**CARMELLES
PROIEKTUA****Txikienei abesten erakutsi****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Musika ikasgaiari, neska-mutiek txikienei abesten erakutsiko diete, eskola ospakizunak abiapuntutzat hartuz.

**Ikaskuntzak**

Musikarekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak; trebetasun plastikoak eta komunikatiboak.

6-12urte



6

**BUZTINEZKO
HABIAK**
Enarak itzultzea lortu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera ikasgaiari, neska-mutilek buztinezko habiak egin eta hiriko gune estrategikoetan jarriko dituzte enarak (Delichon urbica) hirira itzul daitezzen.



Ikaskuntzak

Enararen eta horrek herritik alde egin izanaren arrazoiak ezagutzeko; arazoaren analisia eta irtenbidearen bilaketa; taldean lan egiteko eta buztinarekin aritzeko trebetasunak.

6-12urte

7

**IRRATI BIDEZKO
IPUINAK**

**Osasunari buruzko mezuak
zabaltu**



Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera ikasgaien, neska-mutilek ohitura osasungarriei buruzko mezuak emango dituzte, irrati bidez, asteko "Solask egiteko ipuinak" abiapuntu hartuta.



Ikaskuntzak

Osasunarekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak: elikadura, higiena, jarduera fisikoa, tabakoaren, alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoa, segurtasuna, komunikazio-gaitasunak.

6-12urte



8

**BAKEAREN ETA
MUSIKAREN
ENBAXADOREAK**
Pau Casals ezagutzera eman

Erkidegoari emandako zerbitzua

Musika ikasgaiari, neska-mutilek biolin kontzertuak eskainiko dituzte eta soka-instrumentuak ezagutzera emango dituzte inguruko ikastetxeetan. Gainera, bakearen aldeko mezua zabalduko dute, Pau Casalsen bizitzaren bidez.



Ikaskuntzak

Musikarekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak, Pau Casalsen biografari eta balioei buruzko ezagutzak, komunikazio-gaitasunak.

6-12urte

9

KILOMETRO SOLIDARIOAK

Haur zaugarrien eskubideak babestu



Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera eta Heziketa Fisikoa ikasgaietan, lasterketa solidario bat egiteko funtsak biltzeko kanpaina batean parte hartuko dute neska-mutilek eta egindako kilometro bakoitzetik ekarpen bat egingo duten laguntzaileak bilatuko dituzte.



Ikaskuntzak

Jarrera kritikoa, eskuzabala eta solidarioa, lehen mailako osasun-arreta eta hezkuntza jasotzeko eskubidea urratuta duten eta muturreko pobrezian bizi diren haurrek bizi dituzten bidegabekeriaren aurrean.

6-12urte



10

ELIKAGAIEN
BANKUA

Goseari aurre egiten lagundu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera ikasgaien, neska-mutilak bizilagunen kontzientziak eragiten saiatuko dira eta behartsuenentzako elikagaiak bilduko dituzte. Lortutako guztia auzoko pobrezia arazoari erantzuna ematen diharduten gizarte erakundeen esku jarriko dute.




Ikaskuntzak

Nutrizioari, gabeziei eta horien ondorioei buruzko ezagutzak; pobrezia, ezberdintasun eta elikagaiak alferrik galtzeari buruzkoak; konpromiso-jarrera; antolatze eta komunikatzeko gaitasunak.

6-12urte

11

GURE EGINKIZUNA
Kontzientziatu, ingurumena
zaintzeko



Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera ikasgaietan, Lehen Hezkuntzako neska-mutilek praktikan jarriko dituzte paperaren erabilera murrizteko, eta hori birziklatzeko eta berrerabiltzeko proposamenak, eta jarduera horretatik ateratako ideiak eta ondorioak erkidegoan ezagutzera emango dituzte, bidezko kontsumoarekin lotutako alternatibekin batera.



Ikaskuntzak

Kontzientzia ekologikoa eta aurrezteko kontzientzia; Bidezko merkataritzari buruzko ezagutzak; ideiak azaltzeko eta laburtzeko trebetasunak; Norberaren buruarekiko konfiantza eta asertibitatea.

6-12urte



12

**JOSTAILUAK
DENONTZAT**
Ilusioa piztu gehien behar
duten haurren

Erkidegoari emandako zerbitzua

Jostailuaren industrian lider den hiri bateko Lehen Hezkuntzako neska-mutilek jostailuak biltzeko kanpaina bat antolatu eta burutuko dute, eta ondoren, bildutako jostailuak pobretutako herrialde bateko, Espainiako guneharrietako edota herriko neska-mutil beharretuei helaraziko dizkiete.



Ikaskuntzak

Jostailuen fabrikazioari eta sailkapenari buruzko ezagutzak; haur eta erkidego beharretuen beharren jakitun izan; antolatze eta komunikatzeko gaitasunak; elkartasuna, enpatia, erantzukizuna eta ekintzailetza.

6-12urte

13

HIRI BARATZA

Eskolan erein, auzo berdeago
bat lortzekoErkidegoari emandako
zerbitzua

Ingurunearen Ezaguera ikasgaiari, Lehen Hezkuntzako neska-mutilek barazkiak erein eta landuko dituzte, eta ondoren, jarduera terapeutikoetarako hiri baratzak mantentzen dituzten auzo elkarteetara eramango dituzte.



Ikaskuntzak

Barazkiak eta horiek ereiteko moduak ezagutu; lorezaintzarako teknikak eta trebetasunak; konpromisoa, ahalegina eta talde-lana; Erkidegoko helduekiko harremana.

6-12urte



14

**JANGELAN
LAGUNTZEN**
Txikienei behar bezala jaten
erakutsi

Erkidegoari emandako zerbitzua

Eskolako jangelako txikienei lagunduz, neska-mutilek praktikan jarriko dute Ingurunearen Ezaguera ikasgaiaren elikadurarekin lotutako ohiturei buruz ikasitakoa.



Ikaskuntzak

Komunikazio-gaitasuna, enpatia;
ikasitakoa praktikan jarri;
erantzukizuna, harremanetarako
trebetasunak.

6-12urte

15

BAKEAN JOLASTEN
IKASIPatio garaian jolasak
partekatu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Patio garaian, neska-mutilek aldez aurretik prestatutako jolas tradizional bat erakutsiko diete txikiei.



Ikaskuntzak

Norberarekiko segurtasuna, enpatia, jolasari buruzko ezagutzak, erantzukizuna; arauak komunikatzen, errespetatzen eta errespetarazten ikasi; denboraren eta espazioaren antolaketa.

12-16urte



16

ODOLA EMATEA
Ospitaletako odol-erreserbak
igo

Erkidegoari emandako zerbitzua

Gizarte Zientziak eta Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza ikasgaietan, neska-mutilek odola emateko kanpaina bat abian jarriko dute auzoan, odol-bankuetako defizita leuntzeko.



Ikaskuntzak

Odolari buruzko ezagutzak eskuratu eta odola emateko beharraren jakitun izan; antolatze gaitasuna; mezuak zabaltzeko komunikazio-teknikak.

12-16urte

17

GIZARTE
EKINTZAILE
GAZTEAKBeste herrialdeetako
ikastetxeekin lankidetzan
aritu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Ekintzailtzarako hezkuntza programa baten barruan, neska-mutilek GKE bat sortuko dute eta, kontraparte batekin batera, pobretutako herrialdeetako hezkuntza hobetzeko proiektuak abian jarriko dituzte.



Ikaskuntza

Ekintzailtzarako jokabideak eta trebetasunak; beste kulturak eta errealitate sozialak ezagutu; pentsaera kritikoa, talde-lana.

12-16urte



18

**AUZOKO BERRI-
BILTZAILEAK**
Auzoaren onena ezagutzera
eman

Erkidegoari emandako zerbitzua

Hizkuntza eta Gizarte Zientziak ikasgaietan, neska-mutilek tokiko egunkari bat prestatuko dute auzoaren irudia hobetzeko helburuarekin. Horretarako, bizilagunen jarduera positiboak azpimarratuko dituzte, eta ezagutzera emango dituzte bertako esperientzia solidarioak eta elkarten zereginak.



Ikaskuntzak

Ingurunearen ezagutza; pentsaera kritikoa; irakurketa eta idazketa hobetu; antolaketa eta talde-lana; gaitasun sozialak eta komunikatiboak.

12-16urte

19

ERAIKITZEN LANPETUTA

Erkidegoarentzako aterpe
bat eraiki



Erkidegoari emandako zerbitzua

Aisialdiko hezkuntza-mugimendu batean, neska-mutilek babesleku eta gazte-aterpetxe bat eraikiko dute udako landa-lanetan, horiek gizartearen zerbitzura jartzeko.



Ikaskuntzak

Talde-lana; antolatu eta erabakiak hartu; trebetasun fisikoak eta antolatze teknika garatu, ahalegin fisikoak; emaitzak epe luzean eskuratzen ikasi.

12-16urte



20

**KLIMA
ALDAKETAREN
BITARTEKARIAK**
Ikaskideei ingurumenari
buruzko prestakuntza eman

Erkidegoari emandako zerbitzua

Natur Zientziak ikasgaiari, neska-
mutilak institutuko bitartekari gisa
aritu dira, ikaskideen artean
ingurumenarekiko adeitsuagoak
izango diren jarrerak bultzatzeko.



Ikaskuntzak

Klima-aldaketa eta horrek munduko
pobreziarekin duen lotura hobea
ezagutu;
erantzukizuna eta konpromisoa,
komunikatzeko eta
harremanetarako gaitasunak.

12-16urte

21

ZIBERMANAGERAK
Internet oker erabiltzeagatiko
arriskuak prebenitu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Teknologia ikasgaien, neska-
mutilek interneteko arriskuak
(ziberbullinga, pederastia, intimitate
eskubidearen urraketa, eta abar)
prebenitzeko saioak eskainiko
dizkiete Lehen hezkuntzako haurrei.



Ikaskuntzak

Interneteko arriskuak ezagutu eta
horiei aurre egiteko moduak ikasi;
erantzukizuna;
antolaketa; komunikazio-
gaitasunak.

12-16urte

22

**UKI DEZAGUN
ZURA****Herrian ludoteka bat sortu
eta dinamizatu**

Erkidegoari emandako zerbitzua

Gazte talde bateko nerabeek, udako kanpaldiren batean, ludoteka mugikor bat eraiki eta dinamizatuko dute, herriko txikiak gozameneko.



Ikaskuntzak

Jolasei, jostailuei eta haur psikologiari buruzko ezagutzak; zurgintzako eta marketeriako lanak egiteko trebetasunak; talde-lana; komunikazio-gaitasunak.

12-16urte

23

**ZIZERON
PROIEKTUA****Iritsi berrien eskolaratzea
eta gizarteratzea bultzatu****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Tutoretzan, neska-mutilak institutura iritsi berri den ikaskide baten laguntzaile bihurtuko dira, ikastetxean zein auzoan behar bezala barneratzen laguntzeko.

**Ikaskuntzak**

Jatorrizko herrialdeei, institutuari eta auzoari buruzko ezagutzak; errespetu-jarrerak, erantzukizuna eta konpromisoa; komunikatzeko eta besteekin harremanetan jartzeko gaitasuna.

12-16urte



24

**GAZTE
BERDINTASUNA**
Genero-berdintasunaren
gaineko kontzientzia
harrarazi
helduei

Erkidegoari emandako zerbitzua

Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza ikasgaiari, neska-mutilek aukera- eta genero-berdintasunari buruzko prestakuntza jasoko dute, eta ondoren helduei zuzendutako hitzaldiak prestatu eta eskainiko dituzte.



Ikaskuntzak

Aukera- eta genero-berdintasunari buruzko ezagutzak; komunikazio-gaitasunak, beldur eszenikoa galtzea; talde-lana; konpromisoa.

12-16urte

25

LANDA-LANA
GALLARTAKO
MEATEGIANMeatzaritzaren Museoa
kontserbatzen lagundu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Aisialdiko zentro bateko nerabeek Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoko instalazioak eta piezak kontserbatzen eta birgaitzen lagunduko dute, udako kanpaldi batean.



Ikaskuntzak

Meatzaritzaren historia eta kultura ezagutu; antolatze gaitasuna; ondarea birgaitze eta kontserbatze teknika; helduekin harremanetan jartzeko eta lanean aritzeko trebetasun sozialak.

12-16urte



26

**LET'S TEACH
ENGLISH**
Ingeles-maila hobetu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Atzerriko hizkuntza ikasgaiari, neska-mutilek laguntza emango diete herriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ingeleseko ikasleei, jolasen, ipuinen, ariketen eta dinamiken bitartez.



Ikaskuntzak

Komunikazio-gaitasunak; pazientzia, enpatia, autonomia, auto-estimua, elkartasuna; ingelesa ikasgelatik kanpo sendotu eta erabili; herriko beste ikastetxeekin harremana.

12-16urte

27

**EZAGUTZEA
MAITATZEA DA**
Neska-mutil ezgaituen
motrizitatea estimatu



Erkidegoari emandako zerbitzua


Heziketa Fisikoa ikasgaian, neska-mutilek, bikoteka, hezkuntza bereziko ikasle baten tutore lanak egingo dituzte, haren motrizitatea estimatuz, jarduera ludikoen eta egokitutako kirol ariketen bidez.



Ikaskuntzak

Enpatia, auto-kudeaketa, asertibotasuna, auto-kontrola; gorputzaren funtzionamendua eta ezgaitasunak ezagutu; kirol egokituari buruzko ezagutzak areagotu eta aplikatu.

12-16urte



28

EGUZKI-ERLOJUA
Institurako eguzki-erloju
bat egin

Erkidegoari emandako zerbitzua

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko neska-mutilek bigarren hezkuntzako ikasleek diseinatutako eguzki-erlojua egin eta institutuaren fatxadan jarriko dute.



Ikaskuntzak

Talde-lana, koordinazioa, pazientzia, auto-estimua; lan teknikoa eta zientifikoa balioetsi, erronkei aurre egin, irudimena erabili; talde-lanaren antolaketa; gogoeta egin eta besteek esandakoa entzun.

12-16urte

29

PEDALEI ELKARREKIN ERAGINEZ

Ezgaituei bizikletan ibiltzen
erakutsi



Erkidegoari emandako zerbitzua

Curriculum Anitzeko Programa bateko neska-mutilek ezgaitasun intelektualak eta fisikoak dituzten pertsoneri bizikletak utzi eta horiek erabiltzen erakutsiko diete. Elkarrekin, ibilbide bat egingo dute hiritik.



Ikaskuntzak

Ezgaitasunari eta ingurumenari buruzko ezagutzak; bizikletak ikuskatzeko eta konpontzeko, eta ibilbideak prestatzeko trebetasun teknikoak; talde-lana, errespetua, pazientzia eta konpromisoa; komunikazio-gaitasunak

12-16urte



30

**HARRESIA BABES
DEZAGUN**
**Ondare arkitektonikoa
babestu**

Erkidegoari emandako zerbitzua

Gizarte Zientziak ikasgaiari, neska-mutilek hiriko harresiari buruzko prestakuntza jasoko dute eta herriko beste ikastetxe eta erakundeetarako bisitak prestatuko dituzte.



Ikaskuntzak

Ondare historikoa ezagutu; autonomia, trebetasun sozialak, eta jendaurrean hitz egiten ikastea; auto-estimua, diskurtsoa publikoari egokitzen ikasi, material lagungarriak sortu.

16-18urte

31


**GABON KANTA
LEHIAKETA****Musika sortu, oztopoak
gaindituz****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Musika eskolako ikasle gazteek Gabon Kanta lehiaketa batean parte hartuko dute, Heziketa Bereziko neska-mutilekin batera. Talde bakoitzak besteari lagunduko dio: batzuek abestiaren hitzak asmatuko dituzte eta besteek doinua.

**Ikaskuntzak**

enpatia, estereotipoak gaitzestea, pazientzia, gaitasun sozialak; musika lengoi gisa erabiltzea; talde-lana, baztertuak izateko arriskuan daudenekiko elkartasuna, sentimenduak adieraztea.

16-18urte



32

**LLIUREX
IRAKASLEENTZAT**
Irakasleei erakutsi

Erkidegoari emandako zerbitzua

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko ikasle gazteek kode irekiko Lliurex sistema eragilea erabiltzen ikasiko dute Teknologia ikasgaian, ondoren, institutuko irakasleei sistema hori erabiltzen irakasteko.



Ikaskuntzak

IKTak ezagutu eta erabiltzen ikasi, talde-lana antolatzea eta taldean lan egiten ikastea; mintzamina eta jendaurrean hitz egitea, enpatia, pazientzia, konpromisoa.

16-18urte

33

**ZAIN DITZAGUN
AITON-AMONAK**
Menpekotasunari arreta
emateko ezagutzak
transmititu



Erkidegoari emandako zerbitzua

Erizaintzako Zaintza Osagarriak zikloko ikasleek, ikasitako guztia praktikan jartzeko, menpeko adinekoari arreta etxean emateko moduari buruzko tailer bat prestatu eta eskainiko diete langabeei.



Ikaskuntzak

Ikasitako edukiak eta prozedurak sendotzea eta aplikatzea; helduekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko trebetasunak; estrategia didaktikoak.

16-18urte



34

GAZTEAK AUZOAN
BARRENAGizarte erakundeek laguntza
eman

Erkidegoari emandako zerbitzua

Filosofia eta Herritartasuna ikasgaietan, gazteek auzo elkarteekin lan egiten ikasiko dute, Ekintza Boluntarioaren hastapenari buruzko ikastaroa egin eta gero.



Ikaskuntzak

Auzoak dituen arazoekiko sentikortasuna, konpromisoa hartzeko gaitasuna, beste adineko jendearekin harremanetan jartzeko gaitasuna, norberaren trebetasunak eta gaitasunak besteen zerbitzura jartzea.

16-18urte

35

ESKURIK ALTXA
GABEGizarte erakundeak eta haien
kausak ezagutzera eman

Erkidegoari emandako zerbitzua

Ikus-entzunezko baliabideak ikasgaiko praktketan, ikasleek telebista-programa bat prestatuko dute herriko gizarte erakundeei buruz.



Ikaskuntzak

Komunikazioaren arloko gaitasun profesionalak; elkarteak eta haien arazoak ezagutu; gaitasun sozialak eta konpromisoekiko sentikortasuna, errespetua eta erantzukizuna.

16-18urte



36

ARTEA ESKOLAURREKO HORMETAN

**Ikastetxearen eta auzoaren
itxura hobetu**

Erkidegoari emandako zerbitzua

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko Pintura espezialitateko ikasle gazteek eskolaurre bateko hormak prestatu eta margotuko dituzte, Joan Miróren lana inspiraziotzat hartuta.



Ikaskuntzak

Joan Miró artistaren lana ezagutu; talde-lana, antolaketa, ikasle gazteagoen sentikortasuna; lan-gaitasunak eta gaitasun artistikoak hobetu.

16-18urte

37

VENTE PA'KÁ
PROIEKTUAGaueko alsialdi osasuntsua
sustatuErkidegoari emandako
zerbitzua

Zentro komunitario bateko gazteek dinamizatzailerik gisa aritzeko prestakuntza jasoko dute, auzoko gazteei zuzendutako gaueko jarduerak alternatiboak antolatzeko.



Ikaskuntzak

Adin txikiko alkoholen eta bestelako drogen kontsumoarekiko sentikortasuna; baliabide ludikoak ezagutu; antolatzeko eta komunikatzeko gaitasunak, talde-lana.

16-18urte

38

**LA MURGA
PROIEKTUA****Gizarteratzeko zailtasunak
dituzten etxebizitzak birgaitu****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Scout talde bateko gazteek egoera larrian bizi diren adinekoen etxe zaharkituak garbitu, txukundu, konpondu eta margotuko dituzte.

**Ikaskuntzak**

Auzo pobretuetako bizi-baldintzen ezagutza eta horienganako sentikortasuna; trebakuntza teknikoa; konpromiso-jarrera; komunikazio-gaitasunak, erkidegoarekiko harremanak eta talde-lana.

16-18urte

39

**GURAIZE OZTOPO-
EBAKITZAILEAK**
Ezgaituen irudia hobetu



Erkidegoari emandako zerbitzua

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko gazteek ile-apaindegi eta manikura zerbitzuak eskainiko dizkiete lanerako prestakuntzako tailer bateko ezgaitu intelektualei, ikasitakoa praktikan jartzeko.



Ikaskuntzak

Laneko prestakuntzan eskuratutako ezagutzak eta prozedurak indartzea eta aplikatzea; sentikortasuna eta errespetua, ezgaituekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko trebetasunak.

16-18urte

40

**ETXOLATXO BAT
BIRGAITZEA****Landa-eremuko ondare
arkitektonikoa zaindu****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Kanpoko Gela bateko gazteek ikasitakoa praktikan jarriko dute mahastiak gordetzeko etxolatxo bat, hots, mahastigintzarekin lotutako arkitektura herrikoiaren adierazle esanguratsua, birgaituz.

**Ikaskuntzak**


Igeltserotzako, soldadurako eta lorezaintzako teknikak hobetu eta aplikatu; ingurunea ezagutu, ondarea balioetsi; talde-lana, konpromisoa eta ahalegina.

16-18urte

41

EGUR GEHIAGO

Jaiak dinamizatu
birziklatutako materialak
erabiliz



Erkidegoari emandako zerbitzua

Hezkuntza ez formaleko ikasle gazteek jolas erraldoiak egingo dituzte birziklatutako zurekin, eta herriko jaietan erabiliko dituzte horiek dinamizatze helburuarekin. Jaiak bukatutakoan, jolasak erkidegoaren esku utziko dituzte.



Ikaskuntzak

Autonomia, auto-estimua, ikasteko eta lan egiteko motibazioa, erantzukizuna, parte-hartzea, zailtasunak gainditzeko jarrera, talde-lana.

16-18urte



42

**BERPIZTU
DEZAGUN IBAIA**
Mehatzuak desagerrarazi eta
txoriak erakarri

Erkidegoari emandako zerbitzua

Hezkuntza bereziko ikasle gazteek herritartasuneko ekimen ekologiko batean lagunduko dute arriskuan dagoen ibai bat babesteko, eta besteak beste, kanabera amerikarrak eta tupinanboak (espezie inbaditzaileak) kenduko dituzte eta kaskabeltzarentzako kutxa/kabiak eraikiko dituzte.



Ikaskuntzak

Ingurumenaren ezagutza, herritarren partaidetza, laneko arriskuen prebentzioa, tresneriaren erabilera, sasitzak bereiztea, mantentze-lanak eta garbiketza; gaitasun sozialak eta komunikatiboak.

16-18urte

43

KONEKTA GAZTEA
Edadeko pertsonen
informatika irakatsi



Erkidegoari emandako zerbitzua


Hainbat institututako gazteek, gazte elkarten koordinaziopean, oinarrizko informatika irakatsiko diete auzoko edadeko pertsonen, zulo digitala ezabatzen lagunduz.



Ikaskuntzak

Informatikako ezagutzak;
 zulo digitalari buruzko ezagutzak;
 helduekin komunikatzeko
 eta harremanetan jartzeko
 trebetasunak; plangintza.

16-18urte



44

**PARTEKATU
BEGIRADAK**
Boluntariotza ezagutzera
eman

Erkidegoari emandako zerbitzua

Filosofia eta Herritartasuna ikasgaietan, ikasle gazteek boluntariotzari buruzko argazki erakusketa bat prestatuko dute, haren arrazoiak eta gizarte lanak azaltzeko, eta herritarrei ezagutzera emateko.



Ikaskuntzak

Gizartean dauden askotariko arazoak eta boluntariotzako erakundeak ezagutzera ematea eta herritarrak sentsibilizatzea; fotografia-trebetasunak; antolaketa eta taldean lan egitea; komunikazio-gaitasunak.

16-18urte

45

**ARGIAK, KAMERA...
AKZIOA!****Auzoko energia-
eraginkortasuna hobetu**

Erkidegoari emandako zerbitzua

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko ikasle gazteek elektrizitateari buruzko aholkuak emango dituzte etxebizitza zaharretako energia-eraginkortasuna hobetzeko eta balizko arrisku elektrikoak prebenitzeko.



Ikaskuntzak

Instalazio elektrikoei buruz ikasitakoa aplikatzea; bezeroekiko oinarrizko komunikazioa, antolaketa eta talde-lana, erantzukizuna.

18urtetik gorakoak



46

**KOMUNIKA
TAILERRA**
Nerabeen ahozko
komunikazioa hobetu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza graduako ikasleek bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutako mintzaira lantzeko tailer bat antolatu eta dinamizatuko dute, jendaurreko komunikazioko modulu bat egin eta gero.



Ikaskuntzak

Auto-konfiantza, enpatia, estresa kontrolatzea, ingurunean dagoen beharizan bati erantzuna ematea, komunikazio-gaitasunak, taldeen lidergoa eta zuzendaritza.

18urtetik gorakoak

47

**PEINAS
PROIEKTUA****Inmigrazioarekin lotutako
elkarteei laguntza eman****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Kultura arteko Pedagogiako ikasleak lankidetzan arituko dira kultura artekotasunaren eta inmigrazioaren arloko gizarte ekintzako erakundeekin.

**Ikaskuntzak**

Etorkinen hezkuntza eta gizarte errealitateak ezagutzea; asoziazionismoaren garrantziaren analisia; proiektuen garapenean parte hartzea; ikasgaiaren curriculum-edukiak elkarteei emandako zerbitzuan aplikatzea.

18urtetik gorakoak



48

ADAMS PROIEKTUA**Ospitalean dauden haurren
bizi-kalitatea hobetu**

Erkidegoari emandako zerbitzua

Medikuntzako eta Erizaintzako ikasle gazteek pailazoarena egingo dute onkologiako unitateetan, minbizia duten haurrei ospitaleko egonaldiek eragiten dizkieten ondorio larriak arintzeko helburuarekin.



Ikaskuntzak

Gaixoarekin, senideekin eta profesionalekin harreman zuzena; ospitaleko bizi-baldintzak hobetzeko; enpatia, komunikazio-gaitasunak; baliabide ludikoak; erantzukizuna eta trebetasun profesionalak.

18urtetik gorakoak

49

FIARE PROIEKTUA

Banku Etikoa ezagutzera eman



Erkidegoari emandako zerbitzua

Unibertsitateko ikasleek Banku Etikoari buruzko jakintzak eskuratuko dituzte, eta hori ezagutzen ez duten gazteentzako kanpainak eta ekintzak diseinatuko dituzte.



Ikaskuntzak

Fiare eta Banku Etikoari buruzko ezagutzak, egungo finantza-sistemarekiko jarrera kritikoa; talde-lana, munduari ikuspuntu etiko eta sozial batetik begiratzea.

18urtetik gorakoak



50

IRAKURKETAREN
LAGUNAKIrakurketa bultzatu zailtasun
gehien dituzten haur eta
gazteen artean

Erkidegoari emandako zerbitzua

Gizarte Hezkuntza eta Pedagogiako ikasle gazteek laguntza emango diete eskolan emaitza kaxkarrak dituzten lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei, haien irakurmena, mintzaira eta idazmena hobetzeko xedez.



Ikaskuntzak

Lan-munduari lehen hurbilketa, haur eta gazteekin; hezkuntzaren teoria praktikan jartzea; pazientzia, enpatia, erabiltzaileari egokitzeko estrategiak erabiltzea; besteek errespetatzea eta ulertzea lortzea.

18urtetik gorakoak

51

EGOITZAREN PROIEKTU SOZIALA

Kohesio soziala eta garapen
komunitarioa sustatu



Erkidegoari emandako zerbitzua

Pobretutako auzo bateko unibertsitate-egoitza bateko ikasleak auzoa suspertzearen alde lan egingo dute, bertako ikastetxe eta auzo elkarteekin batera, esku-hartze sozialeko hainbat proiekturen bidez.



Ikaskuntzak

Prestakuntza akademikoa osatzeko giza prestakuntza; esku-hartze sozialerako trebetasunak; ingurunearekiko konpromisoa eta lotura.

18urtetik gorakoak

52

**MARKETING
KORPORATIBOKO
MARATOI
SOLIDARIOA**
GKEen komunikazio arloa
hobetu



Erkidegoari emandako zerbitzua

Marketingeko ikasleak inguruneko GKEekin harremanetan jarriko dira, haien irudia et ekimenak zabaltzeko dituzten arazoak ezagutzeko eta elkarrekin GKEaren komunikazio arloaren diagnostiko bat egiteko.



Ikaskuntzak

Eduki akademikoak praktikan jartzea; antolakundearen ikuspegi estrategikoa; komunikazio korporatiboa; marketing soziala.

18urtetik gorakoak

53

**ONDAREAREN
KUDEAKETA ETA
GIZARTERATZEA****ondare kulturala baztertuak
izateko arriskuan daudenei
hurbiltzea****Erkidegoari emandako
zerbitzua**

Ondarearen Kudeaketa graduko ikasleek berriazko bisita gidatuak prestatuko dituzte gizarte-bazterkeria jasaten duten kolektiboentzat (osasun mentalekin lotutako arazoak dituztenak, pobreak, eta abar), horien beharrianak eta baldintzak aintzat hartuta.

**Ikaskuntzak**


Ondare kulturala ezagutzera emateko didaktika; ondarea kudeatzeko moduari era kritikoan eta eraikitzailean begiratzea; gizarte-bazterkeria sufritzeko arriskua dutenak eta horiekin lan egiten duten antolakundeak ezagutzea.

18urtetik gorakoak

54

**MIQUEL MARTÍ
POL LORATEGI
TERAPEUTIKOA**

**Guztlontzako onuragarria
izango den lorategia sortu**



Erkidegoari emandako zerbitzua

Terapia Okupazionalako ikasleek herritar guztiei irekita egongo den lorategi bat sortu eta zainduko dute, gaixotasun mentalak direla eta baztertuak izateko arriskua duten lagunekin batera.



Ikaskuntzak

Lorzainaren eta terapeuta okupazionalaren rola burutu; harreman terapeutikoan trebetasunak hobetzea; proiektuak diseinatzea eta garatzea; ikerketa kualitatiboaren arloko oinarritzko trebetasunak.

18urtetik gorakoak

55

ARTE ESZENIKOAK
GIZA ESKUBIDEEN
ALDE

Antzerkiaren bitartez aukera-berdintasuna sustatu

Erkidegoari emandako
zerbitzua

Irakasle Eskolako ikasle gazteek antzezlan bat prestatuko dute (musika, gorputz adierazpena, dantza eta elkarrizketak) gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden neska-mutilekin batera, hezkuntza erkidegoan aukera-berdintasunaren garrantzia zabaltzeko eta azpimarratzeko.



Ikaskuntzak

Gelan trebetasunak garatzeko material didaktikoak diseinatzea, berdintasuneko eragile gisa jardutea; diziplina arteko proiektuak ezagutzea eta praktikan jartzea; antzerkia sustapen sozialerako baliabide gisa erabiltzea.

18urtetik gorakoak

56

**BIZI-KALITATEA
HOBETZEKO
TEKNOLOGIA**
Teknologia erkidegoaren
zerbitzura



Erkidegoari emandako zerbitzua

Ingeniaritzako ikasleak ezgaitasun fisiko eta psikikoaren arloko hainbat erakundeekin lankidetzan arituko dira, pertsona horien laneratzea eta enplegarritasun bultzatzeko tresna teknologikoak diseinatzu eta ezarri, adibidez: lokalizatzaileak, material didaktiko espezializatua, irisgarritasuna...



Ikaskuntzak

Karrera amaierako proiektuak burutzea; gizarte erakundeak eta ezgaituen kolektiboa hobeto ezagutzea; aplikazio teknologikoak egokitzea, etika profesionala eta gizarte erantzukizuna.

18urtetik gorakoak

57

KAFEA ETA HITZAK

Emakume etorkinei
espazioak ahalbidetu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Gizarte Lana Graduako ikasleek solasaldiak (dinamikak, dokumentalak, testu irakurketa) antolatuko dituzte herrialde ezberdinetako emakume etorkinekin, interesatuko zaizkien gaiet buruz: laguntasuna, elkartasuna, kultura aniztasuna... Parte-hartzaileak askatasun osoz mintzatuko dira, kafe bat eta gozo tipikoak eskuan dituztela.



Ikaskuntzak

Trebetasun sozialak eta pertsonalak garatzea, adibidez, mintzaira, enpatia eta entzute aktiboa; lotura sozialak sortzea eta indartzea; balioak sendotzea (laguntasuna, errespetua edo justizia); kultura aniztasunetik eta bestelako ikuspuntuak entzutek eratorritako ezagutzak eskuratzea.

18urtetik gorakoak

58

HORRELA, BAI?**Droga kontsumoa
prebenitu**

Erkidegoari emandako zerbitzua

Diseinu graduako ikasleek bereziki nerabeei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina bat prestatu eta burutuko dute, gaueko aisialdiarekin lotutako droga kontsumoa prebenitzeko xedez.



Ikaskuntzak

Droga kontsumoak nerabeengan duen eragina ezagutzea; gerrilla marketingeko estrategiak ezagutzea, eta horiekin publizitate kanpaina bat diseinatzea eta ezartzea.

18urtetik gorakoak

59

SAFALUD

Lehen Hezkuntzako haurren
Ioditasuna prebenitu

Erkidegoari emandako zerbitzua

Dietetikako Heziketa Zikloko ikasleek haur Ioditasuna prebenitzeko neurriak lantzeko materialak diseinatu eta prestatuko dituzte, baliagarriak izango direnak Lehen Hezkuntzako ikasleei eta haien senideei zuzendutako hitzaldiak eta tailerrak antolatuzko.



Ikaskuntzak

Osasunerako Hezkuntzaren didaktika haurrekin aplikatzea, gaitasun sozialak, antolatuzko trebetasunak, empatia, erantzukizuna eta ekintzaitelza.

18urtetik gorakoak

60

**INGURUNEA
ZAINDUZ,
ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
Espazio publikoak lorategiz
hornitu



Erkidegoari emandako zerbitzua

Kartzelan dauden eta lorezaintzako ikastaroa egiten ari diren pertsonak auzoko bizilagunekin batera arituko dira lorategi publikoak zaintzeko lanetan.



Ikaskuntzak

Lorezaintzako ezagutzak, makinak erabiltzen eta zaintzen jakitea; norberaren ezagutza; elkarren arteko harremanak, komunikazioa; talde-lana; lorpena helburu; arazoan eta gatazken kudeaketa; estresaren kudeaketa; ingurumenarekiko sentikortasuna eta errespetua.

I+ZKO 60 JARDUNBIDE HAUEKIN LOTUTAKO IKASTETXEAK ETA GIZARTE EKIMENEN ERAKUNDEAK

Jarraian, azaldutako ikaskuntza~zerbitzuko proiektuak garatzen dituzten ikastetxe, gizarte erakunde eta unibertsitateen zerrenda ez zehatza aurkeztuko dizuegu; izenaren ondoan, erakundeak burututako jardunbide egokiaren zenbakia jarri dugu.

IKASTETXEAK

Andalucía HLHI. Sevilla 51
 Cristóbal Colón HLHI. Valladolid 55
 El Puche HLHI. Almería 4
 Giménez Fernández HLHI. Sevilla 51
 Giner de los Ríos HLHI. Sevilla 10
 Juan de Mairena HLHI. Sevilla 9
 Marzán HLHI. Miengo 1
 Nuestra Señora de la Paz HLHI. Sevilla 51
 Paz y Amistad HLHI. Sevilla 51
 Zurbarán HLHI. Sevilla 51
 Centre d'Estudis Joan XXIII. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Santurtzi Lanbide Hastapenerako Ikastetxea. Santurtzi 39
 Grial zentroa. Valladolid 59
 CEPER de Adultos HHI. Sevilla 51
 Collegi Americà de Barcelona. Esplugues de Llobregat 26
 Collegi Episcopal Mare de Déu de l'Acadèmia. Lleida 16
 Collegi Lope de Vega. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Collegi Maristas Champagnat. Badalona 11
 Collegi Pare Enric d'Ossó. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Collegi Sant Jaume. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Collegi Santa Anna. Bartzelona 5
 Cisneros Ikastetxe Publikoa. Santander 11
 Sagrada Família Ikastetxea. Valladolid 59

San Antonio Abad Ikastetxea. Valentzia 34
 San Vicente de Paul Ikastetxea. Barbastro 14
 Santa Maria Ikastetxea. Portugalete 21
 Escola d'Adults Can Serra. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Escola d'Educació Esp. L'Escorça. L'Hospitalet de Llobregat 27
 Escola d'Educació Especial Xaloc. Sabadell 42
 Escola El Gornal. L'Hospitalet de Llobregat 36
 Escola Espai 3. Sant Joan Despí 6
 Escola Joan Perich Valls. Sant Joan Despí 6
 Escola Milagros Consarnau. L'Hospitalet de Llobregat 2
 Escola Pau Casals. Sant Joan Despí 6
 Escola Pau Vila. L'Hospitalet de Llobregat 8, 15
 Escola Roser Capdevila. Sant Joan Despí 6
 Escola Sant Francesc d'Assis. Sant Joan Despí 6
 Escola Solc Nou. Bartzelona 33
 Escola Vedruna. Bartzelona 16
 Alba Plata BHI. Fuente de Cantos 24
 Asta Regia BHI. Jerez de la Frontera 18
 Cristo del Rosario BHI. Zafra 24
 Matías Ramón Martínez BHI. Burguillos del Cerro 24
 Miguel Catalán BHI. Madril 44
 núm 1. BHI Xàbia 32
 Polígono Sur BHI. Sevilla 51
 Puerta de Cuartos BHI. Talavera de la Reina 20

Suarez de Figueroa BHI. Zafra 24
 Institut Alexandre Satorras. Mataró 30
 Institut Angeleta Ferrer i Sensat. Sant Cugat del Vallès 46
 Institut Arnau Cadell. Sant Cugat del Vallès 46
 Institut Bellvitge. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Institut Bisbe Berenguer. L'Hospitalet de Llobregat 27
 Institut Eduard Fontserè. L'Hospitalet de Llobregat 34, 46
 Institut Eugeni d'Ors. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Institut Joan Miró. L'Hospitalet de Llobregat 36
 Institut Joaquina Pla i Farreras. Sant Cugat del Vallès 46
 Institut Josep Puig i Cadafalch. Mataró 26
 Institut Leonardo Da Vinci. Sant Cugat del Vallès 46
 Institut Maria Aurèlia Capmany. Cornellà de Llobregat 34
 Institut Miquel Biada. Mataró 35
 Institut Rubió i Ors. L'Hospitalet de Llobregat 23, 28, 34
 Institut Torres i Bages. L'Hospitalet de Llobregat 29
 Institut Margarida Xirgu. L'Hospitalet de Llobregat 34
 Musikako Errege Kontserbatorio Profesionala. Almeria 31

GIZARTE EKINTZAKO ERAKUNDEAK

3 y Más. Zaragoza 52
 Academia Americana Medicina Podológica Deportiva. Zaragoza 52
 ACUDEX. Zafra 24
 ADENC. Sabadell 42

- Adunare. Zaragoza 52
- Agrupament Escolta i Guia Roc del Migdia. Gavà 3
- AIJU. Jostailuaren institutu teknologikoa. Ibi 12
- A Toda Vela elkarte. Almeria 31
- AISO elkarte. Ourense 47
- Medikuntzako ikasleen elkarte. Bilbo 48
- Reyes Magos elkarte Ibi 12
- Antonio Machado auzo elkarte. Sevilla 51
- El Sur auzo elkarte. Sevilla 51
- Solidaridad auzo elkarte Sevilla 51
- Deporte Solidario elkarte Zaragoza 52
- Investigación Solidaria SADAR elkarte. Iruñea 56
- Plural.es elkarte. Caldas de Reis 47
- Asorna. Iruñea 56
- Associació Educativa Ítaca. L'Hospitalet de Llobregat 34
- Banc de Sang i Teixits. Bartzelona 16
- Elikagaien bankua. Sevilla 10
- Caritas. Bartzelona 33
- Caritas. Ibi 12
- Centre Esclat. L'Hospitalet de Llobregat 28, 34
- Centre Mediambiental L'Arrel. Sant Joan Despí 6
- Centre Sociosanitari Prytanis. L'Hospitalet de Llobregat 2
- Juan Pablo II Familia Orientaziorako Zentroa. Zaragoza 52
- Valnalón Hiri Teknologikoa. Langreo 17
- C. d'Esplai Pubilla Cases-Can Vidalet. L'Hospitalet de Llobregat 34
- Bellvitge Haur eta Gazte Kluba. L'Hospitalet de Llobregat 25
- Club Sanfeliu-San Ildefons. L'Hospitalet de Llobregat 34, 46
- Consell de Nois i Noies. L'Hospitalet de Llobregat 13
- Creena. Iruñea 56
- Gurutze Gorria. Ibi 12
- Cruz Vermella. Konpostelako Santiago 47
- EDEX. Bilbo 7
- El Grup. Polinyà 22
- Elkarkide. Iruñea 56
- Entre-Amigos. Sevilla 51
- Escoltes Catalans. Bartzelona 38
- Esplai Can Serra. L'Hospitalet de Llobregat 34
- Esplai la Florida. L'Hospitalet de Llobregat 25, 34, 46
- Esplai Nou Quitxalles. L'Hospitalet de Llobregat 34
- La Nacencia Emakumeen elkarteen Federakuntza. Badajoz 24
- FIARE. Bilbo 49
- Fundació Akwaba. L'Hospitalet de Llobregat 34
- Fundació Catalana de l'Esplai. El Prat de Llobregat 43
- Fun. Centre Mèdic Psicopedagògic d'Osona. Vic 54
- Fundació Hospital. Mataró 35
- Fundació Marianao. Sant Boi de Llobregat 37, 46
- ADSIS Fundazioa. Gijón 60

Don Bosco Fundazioa. Sevilla 51
 Federico Ozanam Fundazioa. Zaragoza 52
 La Caixa.Fundazioa. Bartzelona 60
 Pioneros Fundazioa. Logroño 40
 Piquer Fundazioa. Zaragoza 52
 Rey Ardid Fundazioa. Zaragoza 53
 Tomillo Fundazioa. Madril 45
 Boom Gazte Taldea. Sevilla 51
 Hermandad del Refugio. Zaragoza 53
 Hezizerb. Donostia 41
 Hurbart. L'Hospitalet de Llobregat 36
 INJUCAM. Madril 19
 IPADE. Talavera de la Reina 20
 Job Acommodation. Iruñea 56
 Médicos Mundi. Zaragoza 52
 Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa. Gallarta 25
 Museu Pau Casals. El Vendrell 8
 Equus Zebra GKE. A Coruña 47
 Pantallas Amigas. Bilbo 21
 Nosotros También Somos Sevilla Plataforma. Sevilla 51
 Protectora d'Animals Lydia Argilès. Lleida 3
 EDEM proiektua. Sevilla 51
 Red Aragonesa de Entidades Sociales para la inclusión. Zaragoza 52
 FAS Sarea. Zaragoza 52

Residència Santa Eulàlia. L'Hospitalet de Llobregat 2
 Flora Tristán Unibertsitate Egoitza. Sevilla 51
 Save The Children. Bartzelona 14
 Ranzari tailerra. Santurtzi 39
 Tallers Bellvitge. L'Hospitalet de Llobregat 29
 Tasubinsa. Iruñea 56
 {0Guruzetako Unitate Onkologikoa Bilbo 48
 Euskadiko Erizaintzako Ikasleen Elkartasuna. Bilbo 48
 Villabona espetxeko Unitate Terapeutikoa eta Hezitzailea.
 Villabona 60
 YMCA La Rioja. Logroño 57

UNIBERTSITATEAK ETA GOI MAILAKO HEZKUNTZA

Escola Superior de Disseny de les Illes Balears, Palma 58
 Almeriako Unibertsitatea Almeria 4
 Bartzelonako Unibertsitatea Bartzelona 50
 Kantabriako Unibertsitatea Santander 11
 Deustuko Unibertsitatea Bilbo 49
 Errioxako Unibertsitatea Logroño 57
 Konpostelako Santiagoko Unibertsitatea Konpostelako Santiago 47
 Valladolideko Unibertsitatea Valladolid 55
 Viceko Unibertsitatea Vic 54
 Zaragozako Unibertsitatea Zaragoza 53

Pablo de Olavide Unibertsitatea Sevilla 51
 Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Madril 45
 Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea 56
 Ramon Llull Unibertsitatea Bartzelona 46
 San Jorge Unibertsitatea, Zaragoza 52

HERRI ADMINISTRATIOAK

Proiektuotan parte hartu dute:

Bartzelonako Udala 38
 Cosladako Udala 44
 Ibiko Udala 12
 L'Hospitalet de Llobregateko Udala 29
 Mataróko Udala 30, 35
 Portugaleteko Udala 21
 Sant Cugat del Vallèsoko Udala 46
 Yécorako Udala 40
 Sevillako Polígon Sur-eko erakunde eskuduna 56
 Morcíneko Udalbatza 60
 Consorci d'Educació de Barcelona 50
 Almeriako Lurzoruaren Enpresa Publikoa 4
 Aukera-Berdintasunerako Bulegoa, Río Bodión
 Partzuergoa- Zafra 24
 Balear Uharteetako Droga-mendekotasunetarako
 eta Ekintzetarako Plana . Palma 58

IKASKUNTZA~ZERBITZUKO ESPAINIAKO SAREA

Inbentario honetan jaso ditugun jardunbide egokiei buruzko informazioa sareko kide hauek eman dute:

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei
 Zerbikas Fundazioa
 Madrilgo Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Galiziako Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Gaztela-Mantxako Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Almeriako Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Valentziako Erkidegoko
 Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Aragoiko Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Kantabriako I+Z.
 Gaztela eta Leongo Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Errioxako Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Asturiasko Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea
 Extremadurako Ikaskuntza~Zerbitzuko Talde Sustatzailea-
 Río Bodión eskualdea
 Nafarroako IetaZS

IKASKUNTZA-ZERBITZUA SUSTATZEN DUTEN BESTE SARE BATZUK

I+Z (U) sarea

Hainbat unibertsitateko irakasleek osatzen dute.

www.ub.edu/aps/aps/

Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarea, Ikaskuntza-Zerbitzua gaikako sarea:

Askotariko Udalek osatzen dute.

Dos Mares proiektuko sarea:

Irakasleen prestakuntzarako zentroek osatzen dute,

www.dosmares-aps.es

NON ESKURA DEZAKET IKASKUNTZA-ZERBITZUKO ESPERIENTZIEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO?

www.zerbikas.es

www.aprenentatgeservei.cat

<http://aprendizajeserviciom.wix.com/apss-madrid>

www.apscantabria.org

www.ayss-navarra.org

www.aprendizajeservicio.net

www.clayss.org.ar

www.servicelearning.org

www.nylc.org

www.rosersbatlle.net

ikaskuntza zerbitzua



Ikasi, erkidegoari
zerbitzua eskainiz

Zerbikas Fundazioa gizarte ekintzako irabazi asmorik gabeko erakundeek egindako hausnarketa batetik jaio zen, eta bere helburua da neska-mutil eta nerabeen herritartasunerako hezkuntza sustatzea, gizartea hobetzeko konpromiso aktiboaren bitartez.

Inbentario honetan ikaskuntza~zerbitzurako 60 jardunbide egoki jaso ditugu. Esperientzia horietan guztietan, ikasleek ezagutzak eskuratuko dituzte, eta aldi berean, zerbitzua emango diete erkidegoari.

Parte-hartzaileek aurretiko ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak, jarrerak eta balioak hobetuko dituzte, eta aldi berean, konpromisoa hartuko dute inguratzen dituen ingurunea gizarte, kultura, hezkuntza eta ingurumenaren ikuspuntutik hobetzeko.